



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko ekainaren 3a

80. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

##### Galderak:

- 11-24/PES-00167. Galdera, 11-24/PEI-00262 informazio eskaerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-24/PES-00168. Galdera, Andosillako eta San Adriango landa eremuko larrialdi ekipoak bateratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-24/PES-00169. Galdera, Andosillako eta Carcarko landa eremuko larrialdi zerbitzua San Adrianera eramateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- 11-24/PES-00170. Galdera, Europako Next Generation funtsei buruzko web berriaren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- 11-24/PES-00171. Galdera, Andosillako jarduera ekonomikoetako poligonoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- 11-24/PES-00172. Galdera, martxoaren 22an Cabanillasko gizarte-etxea inauguratzeko ekitaldiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 11-24/PES-00173. Galdera, 2023ko ekitaldian Nafarroako Gobernuaren publizitate instituzionalean egindako inbertsioen exekuzioaren gaineko txostenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 11-24/PES-00174. Galdera, Espainiako Gobernuak egindako iragarpenari buruzkoa, zeinaren arabera Nafarroak 11,2 milioi euro jasoko baitu datozen sei urteetan, irakasle laguntzaile izateko 46 lanpostu finantzatzeko. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 11-24/PES-00175. Galdera, Turkiako arnasgailuei orain arte emandako erabilerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 11-24/PES-00176. Galdera, azken ikasketa-urtean dauden BAMEek 2024ko udan izanen duten laguntza-jarduerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 11-24/PES-00177. Galdera, Iruñeko eremu jakin batzuetan zuntz optikoko zerbitzuetarako sarbidea izateko dauden arazoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 11-24/PES-00178. Galdera, Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako zuzendari nagusiaren agenda instituzionalari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 11-24/PES-00179. Galdera, kastoreek egindako kalteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

- 11-24/PES-00180. Galdera, Tuterako ospitalerako ohe elektrikoen lizitazioarako prozesuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- 11-24/PES-00181. Galdera, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Gizarte Zerbitzuen Fundazio Publikoa gainbegiratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- 11-24/PES-00182. Galdera, Nafarroako Kontuen Ganberak egindako gomendioari buruzkoa, fundazio publikoaren figura erabiltzekoa berez bat datorrenean haren izaera juridikoarekin. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- 11-24/PES-00183. Galdera, Gizarte Zerbitzuen Fundazio Publikoaren jardueraren helburuen betetzea ebaluatzeko eraginkortasun-kontrolari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- 11-24/PES-00184. Galdera, hidrokarburoen gaineko zergaren kuotak itzultzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-24/PES-00185. Galdera, Lurralde Kohesiorako kontseilariak luminarien kontratazioari buruz Fiskaltzak egindako ikerketaren berri izateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- 11-24/PES-00186. Galdera, Nafarroako Gobernuak lehendakariak luminarien kontratazioari buruz Fiskaltzak egindako ikerketaren berri izateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- 11-24/PES-00187. Galdera, etxegabetasunaren aurka borrokatzeko Nafarroako Estrategiaren prestaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- 11-24/PES-00188. Galdera, “Erorien Monumentua” izenez ezagutzen den multzo arkitektonikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- 11-24/PES-00189. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren maskara kirurgikoei, FFP2 eta FFP3 maskarek buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- 11-24/PES-00190. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erabili eta botatzeko mediku-edo ospitale-mantalei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- 11-24/PES-00191. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko arnasgailuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- 11-24/PES-00192. Galdera, osasun-azterketen itxaron-zerrendetatik kenduko diren pertsonen kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- 11-24/PES-00193. Galdera, jakitekoa ea zer dela-eta bideratzen diren Iruñera Lizarrako erditzeak. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- 11-24/PES-00194. Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak lehendakaria Joseba Antxon Alonso Egurola jaunarekin bildu den legegintzaldi honetan edo honen aurrekoan. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- 11-24/PES-00195. Galdera, laboreetan tratamendu fitosanitarioak balia tzeari buruz Foruzaingoak bertatik bertara egindako ikuskapenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- 11-24/PES-00196. Galdera, unibertsitatei buruzko foru legea izanen denari begira Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuan egindako bilerei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- 11-24/PES-00197. Galdera, Zizur Zendeako haur-eskolari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-24/PES-00167. Galdera, 11-24/PEI-00262 informazio eskaerari buruzkoa****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak 11-24/PEI-00262 informazio eskaerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko apirilaren 12ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko apirilaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioak 11-24/00167 idatzizko galdera aurkeztu du. Hona hemen Hezkuntzako kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Hezkuntza Departamentuak ez du kontratu harremanik izan FCS Select Product SL enpresarekin, ezta Weihal Textile enpresarekin ere, 2019tik gaur egunera arte.

Iruñean, 2024ko apirilaren 18an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

---

**11-24/PES-00168. Galdera, Andosillako eta San Adriango landa eremuko larrialdi ekipoak bateratzeari buruzkoa****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak Andosillako eta San Adriango landa eremuko larrialdi ekipoak bateratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko apirilaren 12ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko apirilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak idatziz erantzuteko galdera egin du, honako hau jakiteko: "Ikusita Andosillako udal-gobernuari adierazi zaiola Ando-

sillako eta San Adriango landa eremuko larrialdi ekipoak bateratzeko asmoa dagoela, bi ekipo horietako bakoitzak zenbat profesional dauka gaur egun, eta zenbat profesional edukiko du ekipo bateratu berriak?" (11-24/PES-00168). Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuko kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Ekipo bat dago PAC bakoitzean (Andosilla / San Adrián), eta sei profesional ekipo bakoitzean. Baitzen badira, ekipo bateratu berriak hamabi profesional izanen ditu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko apirilaren 15ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

## 11-24/PES-00169. Galdera, Andosillako eta Carcarko landa eremuko larrialdi zerbitzua San Adrianera eramateari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Irene Royo Ortín andreak Andosillako eta Carcarko landa eremuko larrialdi zerbitzua San Adrianera eramateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko apirilaren 12ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularrari atxikitako foru parlamentari Irene Royo Ortín andreak galdera hau egin du idatziz: Osasun Departamentuak aurreikusita al dauka Andosilla eta Cárcarko Landa Eremuko Larrialdi Zerbitzua (LELZ) San Adriánera eramatea? Hala baldin bada, zer arrazoi dago erabaki hori hartzeko eta noiz egingen litzateke aldaketa? (11- 24/PES-00169) Hona hemen Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Osasun Departamentua ikerketa bat egiten ari da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren erabiltzaile guztiei laguntza seguruagoa, efiziente-

agoa eta kalitatezkoagoa bermatze aldera bateratu edo alda daitezkeen etengabeko arreta guneak zeintzuk diren jakiteko.

Hasiera batean, Andosillako etengabeko arreta gunea aztertzen hasi ginen, honako datu hauek kontuan hartuta: maiztasuna, arreta jarraituaren orduak betetzeko dauden langileak eta San Adriango osasun zentroarekiko hurbiltasun geografikoa, osasun arretako isokronoei dagokienez. Joan den martxoan, herrira bisita bat egin genuen Pediatriako kontsultak bisitatze asmoz, eta alkateari jakinarazi genion ildo horretan lanean ari ginela; hala ere, oraindik ez zegoen, eta ez dago, ezarpen datarik, hainbat arreta gune aztertzeke planaren parte baita. Hartu beharreko erabakiak hartzen direnean, eta edozein aldaketa egin aurretik, inguruko alkateekin eta profesionalekin partekatuko da, erabakiak ahalik eta inpakturik txikiena izan dezan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko apirilaren 29an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

## 11-24/PES-00170. Galdera, Europako Next Generation funtsei buruzko web berriaren egoerari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Europako Next Generation funtsei buruzko web berriaren egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko apirilaren 12ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak galdera egin du idatziz —2024ko apirilaren

9ko 202402767 irteera zenbakia du Nafarroako Parlamentuan— Europako Next Generation Funtzen webgune berriaren egoerari buruzko informazioa eskatzeko (11-24/PES-170). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak ematen dion informazioa:

Aurreikusitakoaren arabera, apirilaren 30ean, Ekonomia eta Ogasun Batzordean agertuko naiz, zu ere batzorde horretako kidea izanik, besteak beste, aurkeztu duzun eskaerari erantzuteko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko apirilaren 30ean

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

## 11-24/PES-00171. Galdera, Andosillako jarduera ekonomikoetako poligonoari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Laura Aznal Sagasti andreak Andosillako jarduera ekonomikoetako poligonoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko apirilaren 12ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Andosillako jarduera ekonomikoetarako poligonoari buruz (11-24/PES-00171). Hona Nafarroako Gobernuako Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Nasuvinsaren eta Andosillako Udalaren arteko hitzarmena sinatu zenetik hamar urte luze eta gero, zergatik ez da oraindik garatzen amaitu sinatutako moduan?

Navarra de Suelo y Vivienda SA-Nasuvinsa sozietate publikoak eta Andosillako Udalak lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten 2013ko martxoaren 1ean, La Currilla eremuko lurzoru urbanizazioneko lurzatietan jarduera ekonomikoetarako poligono bat sustatzeko eta egiteko, NA-134 eskualde errepidearen ezker aldean hain zuzen ere.

Bi urte geroago, Sustapeneko kontseilariak martxoaren 27ko 21E/2015 Foru Agindua sinatu zuen, Jarduera Ekonomikoen Eremua sustatzeko Andosillako Udal Planaren aldaketa onartzen duena (2015eko apirilaren 29ko 82. Nafarroako Aldizkari Ofiziala; <https://bon.navarra.es/es/anuncio/-/texto/2015/82/8>).

2018ko uztailaren 19an, Nasuvinsak eta Andosillako Udalak aipatutako lankidetzaz hi-

tzarmenaren eranskin bat sinatu zuten, Udaltzarak aurretiaz berretsitakoa urte bereko uztailearen 5eko ezohiko bilkuran.

2018ko uztailearen 5eko udal erabakian hitzez hitz gogorarazten da 2013ko lankidetzaren hitzarmenaren arabera, toki eremuko jardueraren ekonomikoetarako poligonoa sustatu eta gauzatuko dela, baldin eta "proiektuaren egiaztapen ekonomikoa eginez gero, eta inbertsioa justifikatzeko behar besteko zenbatekoa duten erosketak aukerak formalizatzen badira".

Udal akordioan adierazitakoaren arabera, "bideragarritasuna arriskuan dago, ukitutako lurra erosteagatik ordaindu beharreko azken kostuari buruzko ziurgabetasunagatik, jabeek ez baitituzte onartzen eskainitako prezioa eta desjabetzerako irizpideak".

Era berean, hitzez hitz adierazitakoaren arabera, "hitzarmenaren sustapena eta betearazpena bermatu ahal izateko, Osoko Bilkurak oniritzia eman zion eranskinari. Bertan, honako alderdi hauei buruzko estipulazioak jaso ziren:

- 1.- Poligonoa faseka egitea bultzatzea.
- 2.- Lurra eskuratzeko eta lagatzeko legezko betebeharra berreskuratzeko kostuaren bermea.
- 3.- Izapidetu beharreko gauzatze tresnak planifikatzea.
- 4.- Aurretik sinatutako hitzarmenaren indarraldia.

Ondoren, Andosillako Udalaren Osoko Bilkurak, 2020ko azaroaren 26ko ohiko bilkuran, hasiera batean onartu zuen Andosillako Jarduera Ekonomikoen Eremuko UE-3 Egikaritze Unitatearen desjabetze eremua mugatzeko proiektua, bai eta horren eraginpeko titular, ondasun eta eskubideen zerrenda ere, eta hamabost egunez jendurrean jarri ziren. Osoko bilkura berean, NASUVINSA izendatu zen desjabetzearen onuradun. (2020ko abenduaren 17ko 291. Nafarroako Aldizkari Ofiziala).

Era berean, Andosillako Udalak, 2021eko martxoaren 25ean egindako osoko bilkuran, behin betiko onartu zuen Andosillako Jarduera Ekonomikoen Eremuko UE-3 Egikaritze Unitatearen desjabetze eremua mugatzeko proiektua, bai eta eremu horrek ukitutako titular, ondasun eta eskubideen zerrenda ere; izan ere, horien onura publikoa eta okupatzeko beharra jada deklaraturik zegoen, inplizituki, Plan Orokorren aldaketa onartzearen bidez, eta aurkeztutako alegazioak azalpen-zatian adierazitako moduan ebatzi ziren. (2021eko apirilaren 21eko 90. Nafarroako Aldizkari Ofiziala).

Azalpen kronologiko labur honek balio dezala jasota uzteko jardueraren ekonomikoetarako poligonoa sustatzeko eta gauzatzeko lanek etengabeko garapena izan dutela denboran zehar, betiere Andosillako Udalaren eta Nasuvinsaren arteko lankidetzaren esparruaren baitan.

Era berean, onartu behar da espediente honen tramitazioa zuzenean baldintzatuta egon dela konplexutasun maila handiagatik eta jarduketaren beharrezko bideragarritasun ekonomikoa bermatzeagatik; izan ere, hasiera batean gastu ekonomiko handia eskatuko luke.

Garrantzitsua da azpimarratzea dagoeneko ezarrita dauden enpresak dituen industria eremu batean kokatzen dela hizpide dugun jarduketa, bai eta interes legitimoen, baina batzuetan aurkakoen, testuinguru batean ere. Interes horiek guztien ahallegina eta lana eskatzen dute, alderdi guztien premiei erantzunen dien akordio bat lortu ahal izateko.

Helburu horrekin, Nasuvinsa sozietate publikoak eta Andosillako Udalak lanean jarraitzen dute, prestasun onenaren barruan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko apirilaren 30ean

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

## 11-24/PES-00172. Galdera, martxoaren 22an Cabanillasko gizarte-etxea inauguratzeko ekitaldiari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak martxoaren 22an Cabanillasko gizarte-etxea inauguratzeko ekitaldiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko apirilaren 12ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreaken galdera dela-eta (11-24/PES-00172), honako hau informatu behar dugu:

– Nafarroako Gobernuako Komunikazioko zuzendari nagusia zergatik joan zen Nafarroako lehendakariarekin batera Cabanillasko gizarte-etxe berriaren inaugurazio-ekitaldira martxoaren 22an?

Lehendakaria une bakoitzean egokien iruditzen zaion Gobernuako kideekin batera doa. Kasu horretan, komenigarritzat jo zuen, besteak beste,

Komunikazio eta Proiektzio Instituzionalaren zuzendari nagusia bertan egotea.

– Zer eginkizun izan zuen ekitaldi horretan?

Zuzendari nagusiak bere karguari zegozkion eginkizunak bete zituen.

– Gobernu Irekiaren webgunean argitaratutako agenda instituzionalean zergatik ez zen jaso ekitaldi horretara joanen zela? Gaur, apirilak 4, zergatik ez da oraindik jaso?

Azken unean joatea erabaki zen, eta agenda publikoa kontrolatzeko erabiltzen den aplikazioaren arkitektura dela eta, ezin izan zen gerora informazio hori gehitu.

– Nafarroako Gobernuako nor gehiago joan zen ekitaldi horretara eta zer eginkizun zeukan?

Blanca Cenzano eta Xabier Casimiro lehendakariaren aholkulariak eta Puy Eserverri Protokolo Ataleko burua, karguari zegozkion eginkizunak bete zituztenak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko apirilaren 30ean

Nafarroako lehendakaria: María Chivite Navascués



## **11-24/PES-00173. Galdera, 2023ko ekitaldian Nafarroako Gobernuaren publizitate instituzionalean egindako inbertsioen exekuzioaren gaineko txostenari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak 2023ko ekitaldian Nafarroako Gobernuaren publizitate instituzionalean egindako inbertsioen exekuzioaren gaineko txostenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko apirilaren 12ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00173); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

Gaur, 2024ko apirilaren 4a, argitaratu gabe dago Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian

2023ko ekitaldian Nafarroako Gobernuaren publizitate instituzionalean egindako inbertsioen exekuzioaren gaineko txostena. Zergatik?

Joan den apirilaren 17an, Nafarroako Gobernuak 2023ko ekitaldiko publizitate inbertsioen memoria argitaratu zuen Gobernu Irekiaren atarian. Bertan, departamentu eta kanpainen arabeko inbertsioa zehazten da, bai eta iaz egindako publizitate instituzionaleko ekintzak zabaltzeko erabilitako komunikabideak eta bestelako euskarriak ere.

Hona hemen esteka:

[https://gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/memoria\\_publicidad\\_institucional\\_2023.pdf](https://gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/memoria_publicidad_institucional_2023.pdf)

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko apirilaren 29an

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón



## **11-24/PES-00174. Galdera, Espainiako Gobernuak egindako iragarpenari buruzkoa, zeinaren arabera Nafarroak 11,2 milioi euro jasoko baitu datozen sei urteetan, irakasle laguntzaile izateko 46 lanpostu finantzatzeko**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, Espainiako Gobernuak egindako iragarpenari buruzkoa, zeinaren arabera Nafarroak 11,2 milioi euro jasoko baitu datozen sei urteetan, irakasle laguntzaile izateko 46 lanpostu finantzatzeko, 2024ko apirilaren 12ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Cristina López Mañero andreak 11-24/PES-00174 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Espainiako Gobernuak egin duen eta hurrengo sei urteetan Nafarroak irakasle laguntzaileen 46 plaza finantzatzeko 11,2 milioi euro jasotzea ekarriko

duen iragarkiari buruz. Hona hemen Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Gaur egun, Morant ministroak prentsa ohar bidez jakinarazi zuenez, Nafarroako Gobernua Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitateetako Ministerioarekin hitz egiten ari da aztertzeko Foru Komunitateak zer lanpostu hartuko duen, Espainiako Gobernuak finantzatuko dituen irakasle doktore laguntzailearen plazen osagarri izanen baitira.

Plaza horien kostua egitekoa den urte askotako finantzaketarako hitzarmenean jasoko da, eta Nafarroako Foru Gobernuak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak izenpetuko dute berori.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko apirilaren 30ean

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Patricia Fanlo Mateo

## 11-24/PES-00175. Galdera, Turkiako arnagailuei orain arte emandako erabilerari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak Turkiako arnagailuei orain arte emandako erabilerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko apirilaren 19ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko apirilaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Mar-

tín Rodríguez andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, aldeztatik 11-24-PES-00150 galderan aipatutako arnagailuen erabilerari buruz (11-24/PES-00175). Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

Unera arte ez da beharrezkoa izan Oxyvent arnagailuak erabiltzea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko apirilaren 17an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

## 11-24/PES-00176. Galdera, azken ikasketa-urtean dauden BAMEek 2024ko udan izanen duten laguntza-jarduerari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak zken ikasketa-urtean dauden BAMEek 2024ko udan izanen duten laguntza-jarduerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko apirilaren 19ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Mar-

tín Rodríguez andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, azken urteko BAMEek 2024ko udako hilabeteetan egiten duten jardueraren inguruan Osasun Departamentuak duen plangintzaren xehetasunari buruz (11-24/PES-00176). Hona hemen Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

O-NOZen azken urteko BAMEek heziketa-ziklo berean jarraituko dute udako hilabeteetan, Osasun Ministerioak ezartzen duenarekin bat.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 3an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

## **11-24/PES-00177. Galdera, Iruñeko eremu jakin batzuetan zuntz optikoko zerbitzuetarako sarbidea izateko dauden arazoei buruzkoa**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Iruñeko eremu jakin batzuetan zuntz optikoko zerbitzuetarako sarbidea izateko dauden arazoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko apirilaren 19ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Iruñeko zona jakin batzuetan zuntz optikoko zerbitzuetarako sarbide-arazoak daudela-eta (11-24/PES-00177). Hona Nafarroako Gobernuko Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

Jakinarazten dizugu Nafarroako Gobernuaren Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentua Banda Zabalaren Behatokiaren bitartez harremanetan jarri dela operatzaileekin, egoera hori konpondu ahal izateko.

Arartekoak egin zigun gomendioaren ondorioz, adierazten dizut gure teknikariak Iruñeko Udaleko teknikariekin bileran egonak direla, sakonago ezagutze aldera udaleko hirigintza-araudia eta egoera eta Arartekoak bere idazkian aipatzen duen Sarasate Pasealekua, 6ko etxebizitzaren egoera zehatza.

Halaber, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentutik idazki bat helarazi diogu Eraldaketa Digitaleko Ministerioari, zeinean egungo egoeraren berri ematen baitugu, haiek egoeraren jakitun izan daitezen, beren eskumen-esparruan.

Azkenik, jakinarazi nahi nizuke Arartekoak jo duela berak eginiko iradokizunen arabera urrats bat egin duela Departamentuak, eta amaiera eman diola afera honetan izan duen esku-hartzeari.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 7an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Patricia Fanlo Mateo

## 11-24/PES-00178. Galdera, Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako zuzendari nagusiaren agenda instituzionalari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako zuzendari nagusiaren agenda instituzionalari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko apirilaren 19ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00178); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

Gobernu Irekiaren webgunean argitaratzen den Komunikazioaren eta Proiektzio Instituzionalaren zuzendari nagusiaren agenda instituzionalean zergatik ez da agertzen 2024ko apirilaren 8an Polizia Nazionalaren 200 urteei buruzko erakusketaren inaugurazioan egon zela?

Azken unean erabaki zen ekitaldi horretara bertaratuko zela, eta horregatik ez zen jasota egon goi-kargu horren agenda publikoaren asteko aurreikuspenetan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko apirilaren 19an

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

## 11-24/PES-00179. Galdera, kastoreek egindako kalteei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak kastoreek egindako kalteei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko apirilaren 19ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak 11-24/PES-00179 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, kastoreek eragindako kalteei buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1. Nafarroako zein eremutan antzeman ditu kastoreekin lotutako arazoak?

2020an Nafarroan kastorearen egoerari buruz egindako azterketaren arabera, kastorea isurialde mediterraneoko ibai guztietan dago, Pirinioetako ibaiburuetan izan ezik, nahiz eta Irati ibaiaren burualdean aurkitu den. Oraingoz ez dago jasorik kantauri isurialdean kokagune iraunkorrik dagoenik.

2007-2020 aldian kastoreak eragindako gorabehera hauek erregistratu dira: 2007: 1; 2008: 1; 2009: 0; 2010: 5; 2011: 4; 2012: 7; 2013: 3; 2014: 17; 2015: 21; 2016: 16; 2017: 14; 2018: 10; 2019: 13 eta 2020: 10.

Intzidentzia horiek ubideetako zeinetan gertatu zirelako gaiari dagokionez, esan behar da Nafarroako hamalau ubide desberdinetan egon direla intzidentziak. Horietako hiruk (Aragoi, Ebro eta Irati) intzidentzien erdia baino gehiago hartu zuten (% 55,6 = 45), eta bederatzi ubidek (Aragoi, Ebro,

Irati, Ega, Arga, Alhama, Arakil, Erro eta Salado) erregistratutako intzidentzien % 91,4 hartzen dute (74).

Eskualde atlantikoan kastore europarrak eragindako bi intzidentzia baino ez dira erregistratu, zehazki (% 2,5%=2) bi ubidetan (Larraun eta Arakil), eta Alpeetako eskualde biogeografikoan ez da ezein intzidentziarik erregistratu. Mediterraneoko eskualde biogeografikoarekin harremana duten ibaietan intzidentzia guztien % 97,5 (=79) erregistratu dira.

2021-2023 aldian honako intzidentzia hauek geratu dira erregistratuta Departamentuan: 2021: 17, 2022: 13 eta 2023: 12. Guztiak izan dira mediterraneoko eskualde biogeografikoan.

## 2. Zer neurri hartu dira eremu bakoitzean?

Kasu gehienetan egindako jarduketak izan da kaltetutako partzelen titularri ahoz komunikatzea autobabeseko zer neurri hartu behar diren ustiapenatarako arriskua ezabatzeko nahiz murrizteko.

Kasu zehatz batzuetan, titularri idatziz erantzun zaio, jakinarazteko halaber zer neurri aplikatzen ahal diren partzelan, eta horien artan daude, batzuk aipatze aldera, honako hauek:

- Modu iraunkorren: metalezko sareak jartzea, gutxienez ere metro bateko garaierakoak, fruta-arbolen inguruan.

- Arian-arian uhaldiak egoten ahal diren sasoiak: arbolak pintatzea areazko eta linazi-oliozko nahastura batekin.

2022an Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak proba pilotu bat egin zuen itxitura perimetrala jartzeko Milagroko fruta-arbolen finka baten inguruan kastoreen kalteak minimizatzeko.

Bestalde, 2023an bi zonatan egin da lan (Fitero eta Estellerria) prebentzio neurriak ezartzen saiatzeko kastoreek eraikitzen dituzten presa txikiek eragindako kalteak saiheste aldera, finka mugakideak urak hartu ez ditzan, kastoreek eraikitako dikeetan tutuak tarteka sartzearen bitartez.

Gainera, Departamentuak gaur egun egiten dituen basolanetan laguntzeko deialdiez gain, diruz laguntzen ahal den neurria da kastorearen kaltea jasaten ahal duten basoberritzeetan arbolei babesak jartzea.

## 3. Ukitutako eremu bakoitzak duen kastorekopurua

Nafarroako kastorearen populazioaren azken estimazioa 2020an egin zen, eta informazio hori jadanik eman zen 2023ko azaroaren 9ko 11-23-PEI-00392 galdera parlamentarioaren erantzunean. Ez dago kastore populazioaren estimazio berririk, jotzen baita 2020tik gaur egunera arte ez dela zertan aldaketa handirik egon.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 7an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko konseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

## **11-24/PES-00180. Galdera, Tuterako ospitalerako ohe elektrikoen lizitaziorako prozesuari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Domingo González Martínez jaunak Tuterako ospitalerako ohe elektrikoen lizitaziorako prozesuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko apirilaren 19ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Domingo González Martínez jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Tuterako Osasun Barrutian ohe eta anda elektrikoak eskuratzeari buruz (11-24/PES-00180). Hona Nafarroako Gobernuak Osasun kontseilariak ematen duen informazioa:

Zer arazo edo eragozpen ditu Osasun Departamentuak Tuterako Osasun Barrutirako ohe eta anda elektrikoak berritzeko lizitazio-prozedura abiatu ez izateko?

Lehiaketa zentralizatua egiteko lizitazioaren prozesua abiarazi da. Atarian argitaratu aurreko jarduketak egiten ari gara, hala nola premiak zehaztea eta pleguak nahiz espedienteak prestatzea.

Zer aurreikuspen du Osasun Departamentuak partida hori lizitatzeko eta zer epetan?

Maiatzean zehar egitea da asmoa.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko apirilaren 29an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

## 11-24/PES-00181. Galdera, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Gizarte Zerbitzuen Fundazio Publikoa gainbegiratzeari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Gizarte Zerbitzuen Fundazio Publikoa gainbegiratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko apirilaren 19ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularrari atxikitako foru parlamentari María Isabel García Malo andreak idatziz erantzuteko galdera egin du –2024ko apirilaren 15eko 202402947 irteera zenbakia du Nafarroako Parlamentuan– informazioa eskatzeko Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Gizarte Zerbitzuen Fundazio Publikoari egiten dion ikuskapenari buruz (11-24/PES-181). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Kontrola egiteko kontu-hartzaitzaren eginkizuna gauzatzen da, finantzen etengabeko kontrola egiten da eta auditoretza publikoa ere bai.

Horrela, Kontu-hartzaitza Nagusiak, fundazio bat sortzea baimentzen duen espedientea fiskalizatzean, zaindu behar du figura juridikoa

behar bezala erabiltzen dela. Hain zuzen ere, galderan hizpide den kasu zehatzean, alderdi hori analizatu eta horri buruz ondorioak atera ziren. Bestalde, Ekonomia eta Ogasun Departamentua erregelamenduz garatzen ari da etengabeko ikuskapena, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 42. artikulua ezartzen duenarekin bat.

Aipatutako arauaren arabera, etengabeko ikuskapenak xedetzat du “egiaztatzea beren horretan dirautela haien sorkuntza justifikatu zuten arrazoiek, eta finantzarioki jasangarriak direla, haien jardunaren bitartez erdietsitako lorpenak kontuan hartuz gero. Halaber, ikuskapenak zenbait mantentze-, eraldatze- edo azkentze-proposamen jaso beharko ditu adierazita. Herritarren iritzia ere jasoko du, kanpoko zerbitzuen ematearen kasuetan”.

Horrenbestez, Departamentu honek, Kontu-hartzaitza Nagusiaren bidez, kontrolatu egiten du Fundazio Publikoaren figuraren erabilera egokia egiten dela, kasua bada egoki diren gomendioak emanda.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 7an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: José Luis Arasti Pérez



## **11-24/PES-00182. Galdera, Nafarroako Kontuen Ganberak egindako gomendioari buruzkoa, fundazio publikoaren figura erabiltzekoa berez bat datorrenean haren izaera juridikoarekin**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, Nafarroako Kontuen Ganberak egindako gomendioari buruzkoa, fundazio publikoaren figura erabiltzekoa berez bat datorrenean haren izaera juridikoarekin, 2024ko apirilaren 19ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Alderdi Popularrari atxikitako foru parlamentari María Isabel García Malo andreak idatziz erantzuteko galdera egin du –2024ko apirilaren 15eko 202402948 irteera zenbakia du Nafarroako Parlamentuan– (11-24/PES-182), informazioa eskatzeko Nafarroako Kontuen Ganberak fundazio publikoaren figura erabiltzeko egindako gomendioaren harira, Gizarte Zerbitzuen Fundazio Publikoa sortzeko prozedurari lotuta, bere horretan duen izaera juridikoaren arabera denean eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuak egiten duen interpretazioari buruz eta gomendio hori egiteko baliatutako tresnei buruz. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariak horri guztiari buruz ematen dion informazioa

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak gomendio horren harira egiten duen interpretazioari dagokionez, adierazi behar da Gobernuak ez duela eskumenik interpretazioak egiteko, eta araudia bete-betean betetzen dela zaintzea dela bere eskumena. Ildo horretatik, fundazio publikoaren figurak Nafarroako Fundazioei buruzko ekainaren 30eko 13/2021 Foru Legeak ezarritakoarekin bat etorri behar du, bertan adierazten baita fundazioak irabazteko asmorik gabeko pertsona juridikoak direla, beren ondarea interes orokorreko xedeak betetzera lotuta dutenak, modu iraunkorrean.

Gomendioa betetzeko baliatutako tresnei buruzko bigarren gaiari dagokionez, Nafarroako

Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 13ko 13/2007 Foru Legeak ezartzen duenez, Foru Komunitateko Administrazioan, bere erakunde publikoetan, fundazio publikoetan eta sozietate publikoetan, barne kontrola Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren kargura da, eta Kontu-hartzailtza Nagusiaren bidez gauzatzen da, Foru Lege horretan eta erregelamenduzko xedapenetan ezartzen denarekin bat.

Kontrol hori egiteko kontu-hartzailtza eginkizuna gauzatzen da, finantzen etengabeko kontrola egiten da eta auditoretza publikoa ere bai.

Horrela, Kontu-hartzailtza Nagusiak, fundazio bat sortzea baimentzen duen espedientea fiskalizatzean, zaindu behar du figura juridikoa behar bezala erabiltzen dela. Hain zuzen ere, galderan hizpide den kasu zehatzean, alderdi hori analizatu eta horri buruz ondorioak atera ziren. Bestalde, Ekonomia eta Ogasun Departamentua erregelamenduz garatzen ari da etengabeko ikuskapena, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 42. artikulua ezartzen duenarekin bat.

Aipatutako arauaren arabera, etengabeko ikuskapenak xedetzat du “egiaztatzea beren horretan dirautela haien sorkuntza justifikatu zuten arrazoiek, eta finantzarioki jasangarriak direla, haien jardunaren bitartez erdietsitako lorpenak kontuan hartuz gero. Halaber, ikuskapenak zenbait mantentze-, eraldatze- edo azkentze-proposamen jaso beharko ditu adierazita. Herritarren iritzia ere jasoko du, kanpoko zerbitzuen ematearen kasuetan”.

Horrenbestez, Departamentu honek, Kontu-hartzailtza Nagusiaren bidez, kontrolatu egiten du Fundazio Publikoaren figuraren erabilera egokia egiten dela, kasua bada egoki diren gomendioak emanda.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 7an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

## 11-24/PES-00183. Galdera, Gizarte Zerbitzuen Fundazio Publikoaren jardueraren helburuen betetzea ebaluatzeko eraginkortasun-kontrolari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak Gizarte Zerbitzuen Fundazio Publikoaren jardueraren helburuen betetzea ebaluatzeko eraginkortasun-kontrolari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko apirilaren 19ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularrari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00183):

- Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua nola egiten ari da eraginkortasunaren gaineko kontrola entitatearen jardueraren helburuak nola bete diren ebaluatzeko? Zer tresna erabiltzen ari da horretarako?

Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Jarraian jasota daude gaur egun erabiltzen diren askotariko tresnak eraginkortasunaren gaineko kontrola egiteko entitatearen jardueraren helburuak nola bete diren ebaluatzeko.

Kudeaketako enkargu instituzional bakoitzerako:

- Gizain Fundazioko Patronatuak kasuan kasuko aurrekontua onesten du –gehieneko gastuaren muga– (banakatuta zehazten da zentroko/zerbitzuetako langileen kostuekin, zentroaren/zerbitzuaren funtzionamendu gastu orokorrekin, Gizain Fundazioaren egituraren gastu egozgarriekin). Oro har aribideko urteko irailean, aribideko urteko abendutik hurrengo urteko azarora bitarteko enkargurako.

- Gerora arlo nahiz zuzendaritza bakoitzarekin egokitzen dira aurrekontua eta enkargua gauzatzeko baldintza teknikoak (Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziarekin adingabeentzako zentroetako kudeaketako enkarguak eta Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusiarekin, berriz

gizarte zerbitzuen zentroetako eta BGDS/EB izapidetzeko unitateetako kudeaketako enkarguak). Arlo nahiz zuzendaritza bakoitzak enkargu instituzionalaren kasuan kasuko ebazpena eta gauzatzeko baldintzak jasotzen dituen dokumentua ematen ditu.

Enkargu instituzionalen garapeneraren kontrola eta ikuskapena:

1) Gizain Fundazioarekin departamentuarterako koordinaziorako Zuzendaritza Batzordea arduratuko da enkargua behar bezala betetzen dela kontrolatu eta jarraipena egiteaz, ezertan galarazi gabe ekipo nahiz zentro bakoitzak koordinatzeko eta jarraipen teknikoak egiteko sistema. Zentroetako kontu-hartzailak arloetan eskumena duten unitate organikoen ordezkariak izanen ditu Batzordeak, eta honako hauek osatuko dute:

- Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren zuzendari nagusia.
  - Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren zuzendari kudeatzailea.
  - Familiaren eta Adingabeen zuzendariordea.
  - Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren zuzendaria.
  - Oinarrizko Laguntzaren eta Gizarteratze-lanaren Zerbitzuko zuzendaria.
  - Gizain Fundazioaren zuzendari kudeatzailea.
  - Gizain Fundazioaren zuzendari teknikoa.
- (Batzordeak urtean bi aldiz ditu bilerak)

2) Kontrol eta jarraipen teknikoak mekanismoak honen bidez egiten dira:

Dokumentuak:

- Urteko oroitidazkiak.
- Eskubide Sozialetako Departamentuaren atal/zuzendariordetza bakoitzaren premien nahiz interesen arabera eskatutako txostenak.
- Prozedura eskuliburuak (eguneraketak).
- Protokoloak.
- Burutzek Zuzendaritza Teknikoari posta elektronikoki bidez egindako kontsulta zehatzak.

Aldizkako bilerak noizean behin (hilero, bi hilean behin edota hiruhilekoan behin Nafarroako Gobernuaren askotariko burutzen erabakiz):

Gizain Fundazioaren Zuzendaritza Teknikoa eta Nafarroako Gobernuaren burutza bakoitza (prozedura eta estrategia analizatzeko, xedeen betetzea eta garapena ere bai):

- Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordetza.
  - Babesgabetasun Egoeren Balorazio Atalaren burutza.
  - Zaintza Kudeatzeko eta Neurri Judizialak Betearazteko Atala.
  - Oinarrizko Laguntzaren eta Gizarte Inklusioaren Zerbitzua (Gizarte Zerbitzuetako Oinarrizko Laguntzaren Koordinazio Atala eta Zuzendaritza).
  - Gizarte Inklusiorako eta Gutxiengoei Arreta Emateko Atala.
  - Diru-sarrerren Bermearen eta Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzua.
  - Neurri Judizialak Betearazteko Bulegoa.
  - Nafarroako Berdintasunerako Institutuko Berdintasunerako Gobernantzaren Zuzendariordetza.
- Baterako batzordeetan eta lan mahaietan parte hartzea, maila tekniko-operatiboan, esku-hartze zuzeneko beste eragile batzuekin batera, edo maila estrategikokoetan (NGrekin bakarrik):
- Nafarroako Adingabeen Mahaia (NGrekin, HNATren koordinazioarekin eta OGZetako eta Iruñeko Auzo Unitateetako ordezkariekin batera). Hiru hilean behin.
  - Departamentuko Adingabeen Mahaia (Adingabeen Zuzendariordetza, Oinarrizko Osasun Laguntza eta Gizain Fundazioko zuzendari nagusia). Bi hilean behin.
  - Nafarroako Oinarrizko Osasun Laguntzako Ikuskapen Mahaia (Oinarrizko Osasun Laguntza, GSKo zentroak eta Gizain Fundazioko zuzendari-kudeatzailea). Hilean behin.
  - Gizarteratzeko eta Laneratzeko ikuskapena (Gizarteratzea, Gizain Fundazioko Gizarteratze eta Laneratze Taldeetako koordinatzaileak eta Gizain Fundazioko zuzendari-kudeatzailea). Hiru hilean behin.
  - Indarkeriaren Biktimei Laguntza Orohartzailea emateko Lantaldeen Ikuskapen Mahaia (NABI, Indarkeriaren biktimei laguntza orohartzailea emateko lantaldeen koordinatzaileak eta Gizain Fundazioko zuzendari-kudeatzailea). Hiru hilean behin.
  - Indarkeriaren Biktimei Laguntza Orohartzailea emateko Zentroen Ikuskapen Mahaia (NABI, Indarkeriaren biktimei laguntza orohartzailea emateko zentroen koordinatzaileak eta

Gizain Fundazioko zuzendari-kudeatzailea). Hiru hilean behin.

- Izapidetze Unitate Administratiboan Ikuskapen Mahaia (Diru-sarrerren Bermea eta Garapenerako Lankidetzak, izapidetze unitate administratiboan koordinatzailea eta Gizain Fundazioko zuzendari-kudeatzailea). Hilero.

Horrez gainera, HNATen, behaketa eta harrera zentroen, gazteen justizia eta eskubideen batzordeen eta izapidetze unitate administratiboan kasuan, ikuskapena koordinaziozko figurekin egiten da zuzenean, Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordetzarekin zuzeneko bilerak eginda bi hilean behin. Eduki operatibokoak izaten dira.

Halaber, Zuzendaritza Teknikoen barnean kontrolako eta ikuskapeneko honako jarduketak hauek egiten dira:

- Hilean behingo bilerak zentro bakoitzeko koordinatzaileekin.
- Hilean behingo bilerak antzeko zentroetako koordinatzaile guztiekin.
- Hilean behingo bilerak antzeko taldeetako koordinatzaile guztiekin.
- Mezu elektronikoak kontsultak eta WhatsApp erantzuteko.
- Prozedurak, erregistroak eta protokoloak.
- FAQak (ohiko galderak eta erantzunak) eta prozedurazko eskuliburuak.

Gizain Fundazioaren Estrategiaren jarraipena egiteko, adierazleen lehenengo multzo bat dago diseinatuta (Excela erantsi da). Eraikitzen ai den sistema da, kudeaketa aurreratuaren ereduarekin eta plan estrategiko berria osatzeko prozesuarekin lerrokatzeko.

Azkenik, azpimarratu behar da GIZAIN Fundazioari egindako lanak enkargatzeko izapidetutako espediente guztiek, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioari erakunde instrumentala den aldetik, nahitaezko txosten teknikoak eta juridikoak dituztela, bai eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuan eskuordetutako kontu-hartzailetzaren aldeko fiskalizazioa ere.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafraña

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentariaren eskura dago Parlamentuaren kudeaketarako Ágora sisteman).

## 11-24/PES-00184. Galdera, hidrokarburoen gaineko zergaren kuotak itzultzeari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak hidrokarburoen gaineko zergaren kuotak itzultzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko apirilaren 19ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Nafarroako Parlamentuko 202402950 iteera zenbakiarekin erregistratua, 2024ko apirilaren 15ean (11-24/PES-00184 galdera), hidrokarburoen gaineko zergaren kuoten itzulketari buruzko askotariko informazioa eskatzeko. Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

1. eta 2. galderetan adierazitako alderdiei dagokienez:

Urtea	Itzulketaren zenbatekoa (eurotan)	Zergadunen kopurua
2010	2690396,62	3922
2011	2668806,98	3724
2012	2633416,72	3669
2013	2476717,80	3445
2014	2564426,94	3250
2015	2526481,58	3160
2016	2639220,13	3119
2017	2500146,52	3005
2018	2071441,94	2848
2019	2123137,58	2813
2020	2100640,06	2818
2021	2350168,43	2754
2022	2137057,57	2725

3. eta 4. galderetan adierazitako alderdiei dagokienez:

Hidrokarburoen gaineko zergan onura fiskalak kalkulatzeko erabilitako metodologia Nafarroako Aurrekontu Orokorretan zenbatetsitako gehieneko gastutik abiatzen da, eta geroago zehazten da zenbateko horren zer zati datorren bat onura fiskalarekin.

Ekitaldi zehatz baten gehieneko gastua zehazteko orduan, hidrokarburoen gaineko zergari dagokionez, zenbait aldagai hartzen dira kontuan, hala nola aurreko ekitaldiko diru-bilketa likidoaren datuak, hazkunde ekonomikoko aurreikuspenak, arauetan izandako aldaketak eta azterketaren xede den ekitaldiaren diru-bilketan eragina izaten ahal dutenak, bai eta beste batzuk ere.

Onura fiskalari dagokion zatia zehazte aldera erreferentziatzat hartzen da Estatuak aurreko eki-

taldiko Onura Fiskalen Aurrekontuen Memorian ezarritako portzentajea.

Nafarroako Onura Fiskalen Aurrekontuetan aurreikusitako hazkundera 2024 ekitaldian, hidrokarburoen gaineko zergarako, eta aurreko ekitaldiarekin alderatuta, funtsean, keroseno kontsumo salbuetsietan izandako hazkunde nabarmenagatik da; izan ere, bikoizteko zorian egon dira eta onura fiskalean guztira zenbatetsitako portzentajearen hazkundera eragin dute guztira aurreikusitako diru-sarreraren % 19,23raino, eta 2023 ekitaldirako % 13,55 ezarri zen.

Hidrokarburoen gaineko zergan zenbatetsitako onura fiskalen guztizko zenbatekoan, eta erreferentziatzat hartuta Estatuak Memorian aurreko ekitaldirako jasotako datuak, gasolioa erosteagatik nekazari eta abeltzainei egindako kuoten itzulketa partziala guztizkoaren % 8,6 da. Onura fiskalaren egituraren taula erantsi da kon-

ONURA FISKALEN EGITURA HIDROKARBURUEN GAINEKO ZERGAN	
Kontzeptua	Egitura (%)
<b>A. Salbuespenak:</b>	<b>54,2</b>
A.1. Gasolioak	15,7
A.2. Kerosenoa	34,4
A.3. Fuel-olioak	3,0
A.4. Gas naturala elektrizitatea ekoizteko	1,2
A.5. Biogasa elektrizitatea ekoizteko	-
<b>B. Zerga tasa murriztuak:</b>	<b>36,5</b>
B.1. Gasolioak motor jakin batzuetarako	36,5
B.2. Biogasa motor geldikorretarako	-
<b>C. Itzulketak:</b>	<b>9,3</b>
C.1. Garraiolariak	0,7
C.2. Nekazariak eta abeltzainak	8,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>100,0</b>

tzeptuetan sailkatuta, Memoria horretan jasota dagoenez.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 7an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

## 11-24/PES-00185. Galdera, Lurralde Kohesiorako kontseilariak luminarien kontratazioari buruz Fiskaltzak egindako ikerketaren berri izateari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier García Jiménez jaunak Lurralde Kohesiorako kontseilariak luminarien kontratazioari buruz Fiskaltzak egindako ikerketaren berri izateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko apirilaren 19ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularrari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, jakiteko ea noiztik zekien Lurralde Kohesiorako kontseilariak Fiskal-

tza luminarien kontratazioaren inguruko ikerketa egiten ari zela (11-24/PES-00185). Hauxe galdetu du, zehazki: "Noiztik zenekien Fiskaltza ikertzen ari zela Lurralde Kohesiorako Departamentuak egin duen luminarien kontratazioa?"; eta hona hemen Nafarroako Gobernuaren Lurralde Kohesiorako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Ez dut ofizialki jakin Fiskaltza ikerketa egiten ari zenik Lurralde Kohesiorako Departamentuak egindako luminarien kontratazioaren inguruan.

Komunikabideetan argitaratu denaren berri izan dut soilik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 7an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

## **11-24/PES-00186. Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariak luminarien kontratazioari buruz Fiskaltzak egindako ikerketaren berri izateari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier García Jiménez jaunak Nafarroako Gobernuko lehendakariak luminarien kontratazioari buruz Fiskaltzak egindako ikerketaren berri izateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko apirilaren 19ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Alderdi Popularrari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak 11-24/PES-00186 galdera egin du, honako hau:

Noiztik zekien Chivite andreak Fiskaltza ikertzen ari zela Lurralde Kohesiorako Departamentuak egin duen luminarien kontratazioa?

Fiskaltza Nafarroako Gobernuarekin harremanetan jarri ez denez, eta horri buruzko ezein dokumentaziorik eskatu ez duenez, lehendakariak ez zuen inguruabar horren berri izan Kontuen Ganberako lehendakariak Nafarroako Alderdi Popularraren galderari emandako erantzuna ezagutzera eman arte.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 7an

Nafarroako lehendakaria: María Chivite Navascués



## 11-24/PES-00187. Galdera, etxegabetasunaren aurka borrokatzeko Nafarroako Estrategiaren prestaketari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak etxegabetasunaren aurka borrokatzeko Nafarroako Estrategiaren prestaketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko apirilaren 19ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularrari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00187):

- Nafarroako Gobernuak aurreikusita al du etxegabetasunaren aurka borrokatzeko Nafarroako estrategia bat egitea? Hala bada, noizko espero duzue prest egotea?

Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Nafarroak parte hartzen du Etxegabetasunaren aurka borrokatzeko 2023-2030 Estrategia Nazionalean, Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluaren eta Mendekotasunari arreta emateko eta Autonomiarako Sistemaren Esparru Akordioaren babesean etxegabetasunari aurre egiteko.

Gaur egun, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuan lan egiten eta parte hartzen ari gara "Etxerik gabekoei Arreta emateko Ibilbide Orria" deritzon dokumentuan, marko kontzeptuala, xede jakin batzuk eta lanerako ardatz batzuk ezartzen dituen ekin-tzetarako lehentasunezko ildoak definituko dituztenak eta Gizarte Inklusiorako etorkizuneko Plan Estrategikoaren oinarri izanen direnak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca



## 11-24/PES-00188. Galdera, “Erorien Monumentua” izenez ezagutzen den multzo arkitektonikoari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak “Erorien Monumentua” izenez ezagutzen den multzo arkitektonikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko apirilaren 19ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 11-24/PES-00188 galdera idatzia egin du “Erorien Monumentua” deritzon multzo arkitektonikoari buruz. Hau da Nafarroako Gobernuo Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Multzo arkitektoniko hori ez dago interes kultureko ondasun izendatuta, ezta inbentarioko ondasun ere Nafarroako Kultura Ondarearen 14/2005 Foru Legean jasotzen denaren arabera. 22 eta 24. artikuluek ez dute harremanik ondasun baten babesarekin, deklaratzeko prozesuarekin baizik, baita Nafarroako Kultur Ondareko ondasunen Erregistroa sortzearekin ere.

Egia da “Erorien Monumentua” izeneko eraikina Iruñeko Udalaren Planeko babesari buruzko katalogoan sartuta dagoela (2002) 2. graduan (erdiko atala) eta 3. graduan (alboko eraikinak eta arkuteriak). Arauzko zehaztapen horrek higiezinaren balio arkitektonikoaren araberrako legezko babesa ematen dio.

Adierazi denez, gaur egun eraikina ez da garrantzi lokaleko ondasuna, baina Iruñeko Udalaren Planeko babesari buruzko katalogoaren babesa du. Udalak katalogo horren aldaketa proposatzen ahal du Udalaren Planaren aldaketa xehatu bat izapidetuta. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 71.9 artikulua xedatzen duenez, kultur ondare higiezinako eraikin bati eragiten dion antolamenduaren aldaketa batek, kasua denez –Kultura Ondarearen 14/2005 Foru Legearen 2 eta 13.1 d) artikuluekin bat–, kulturaren eskumena duen departamentuaren txosten kualifikatua behar du, eta, 14/2005 Legearen 32. artikulua xedatzen duenez, kulturaren eskumena duen departamentuaren nahitaezko txosten loteslea behar du ere bai.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 3an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria:  
Rebeca Esnaola Bermejo

## 11-24/PES-00189. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren maskara kirurgikoei, FFP2 eta FFP3 maskareei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren maskara kirurgikoei, FFP2 eta FFP3 maskareei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko apirilaren 19ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren FFP2 eta FFP3 maskara kirurgikoei buruz (11-24/PES-00189). Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

– Zenbat maskara kirurgiko FFP2 eta FFP3 zituen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak COVID-19aren pandemia hasi aurretik?

	STOCKA 2020/03/01ean
MASKARA KIRURGIKO ERREKTANGELUAR GOMADUNA	26.174
MASKARA KIRURGIKO ERREKTANGELUAR ZINTADUNA	8.000
FFP-2 BABES MARKARA	4.972
FFP-3 BABES MARKARA	1.280

– Zenbat maskara kirurgiko FFP2 eta FFP3 erosi ziren COVID-19aren pandemiak iraun zuen bitartean (pandemiaren hasiera ofizialki deklaratu zenetik bukaera ofizialki deklaratu zen arte), zer enpresa edo entitatek eta zer kostu ekonomikoa-ekin?

Eranskinean jasota dago 2020/03/01etik 2023/07/04ra bitarte erositakoen xehetasuna.

– Zenbat maskara kirurgiko FFP2 eta FFP3 jaso zituen Nafarroak dohaintzan COVID-19aren pandemiak iraun zuen bitartean (pandemiaren hasiera ofizialki deklaratu zenetik bukaera ofizialki deklaratu zen arte), eta zein enpresa edo entitate-ren eskutik?

FFP-3 BABES MARKARA	290
FFP-2 BABES MARKARA	400
MASKARA KIRURGIKO ERREKTANGELUAR ZINTADUNA	240

– Zenbat maskara kirurgiko FFP2 eta FFP3 erosi dira pandemia amaitu zenetik gaur arte?

Eranskinean jasota dago 2023/07/04tik erositakoen xehetasuna.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Eranskinean jasota dago dohaintzen xehetasuna.

– Pandemiaren erositako zenbat maskara kirurgiko FFP2 eta FFP3 iraungi dira erabiliak izan gabe eta zer egin da horiekin?

– Pandemiaren dohaintzan jasotako zenbat maskara kirurgiko FFP2 eta FFP3 iraungi dira erabili gabe eta zer egin da horiekin?

Iraungitako maskarak (nola erosiak hala dohaintzan jasotakoak):

Iraungitako maskarak baztertu egin dira eta sistematik logistikoki atera dira.

Iruñean, 2023ko urriaren 31n

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Parlamentuaren kudeaketarako Ágora sisteman).

## 11-24/PES-00190. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erabili eta botatzeko mediku- edo ospitale-mantalei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erabili eta botatzeko mediku- edo ospitale-mantalei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko apirilaren 19ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren erabili eta botatzeko mantal mediko nahiz ospitalekoei buruz (11-24/PES-00190). Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

– Erabili eta botatzeko zenbat mediku- edo ospitale-mantal zituen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak COVID-19aren pandemia hasi aurretik?

	STOCKA
ERABILI ETA BOTATZEKO OSPITALE-MANTAL ESTANDAR ETA EZ-ESTERILA	80.624
ERABILI ETA BOTATZEKO MANTAL KIRURGIKO ESTANDAR ESTERILA, NEURRI "HANDIA"	2.491
ERABILI ETA BOTATZEKO BABES HANDIKO MANTAL KIRURGIKO ESTERILA, NEURRI "OSO HANDIA"	586
ERABILI ETA BOTATZEKO MANTAL KIRURGIKO ESTANDAR ESTERILA, NEURRI "OSO HANDIA"	1.384
ERABILI ETA BOTATZEKO MANTAL IRAGAZGAITZA ETA EZ-ESTERILA, NEURRI BAKARREKOA	2.268
ERABILI ETA BOTATZEKO BABES HANDIKO MANTAL KIRURGIKO ESTERILA, NEURRI "HANDIA"	489

– Erabili eta botatzeko zenbat mediku- edo ospitale-mantal erosi ziren COVID-19aren pandemiak iraun bitartean (pandemiaren hasiera ofizialki deklaratu zenetik bukaera ofizialki deklaratu zen arte)?

– Zenbatekoa izan zen erosketa horien kostu ekonomikoa?

– Zein enpresari erosi zitzaizkien mantal horiek?

Eranskinean jasota dago 2020/03/01etik 2023/07/04ra bitarte erositakoen xehetasuna.

Kopurua	Zenbatekoa	Oharrak
4.192	10764,54	Ayuda Contenedores GKEak dohaintzan emandakoak

– Erabili eta botatzeko zenbat mediku- edo ospitale-mantal erosi dira pandemia amaitu zenetik gaur arte?

Eranskinean jasota dago 2023/07/04tik erositakoen xehetasuna.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

– Erabili eta botatzeko zenbat mediku- edo ospitale-mantal jaso zituen Nafarroak dohaintzan COVID-19aren pandemiak iraun bitartean (pandemiaren hasiera ofizialki deklaratu zenetik bukaera ofizialki deklaratu zen arte)?

Eranskinean jasota dago dohaintzen xehetasuna.

– Pandemian erositako edo dohaintzan jasota erabili eta botatzeko zenbat mediku- edo ospitale-mantal iraungi dira erabili gabe? Zein izan zen horien kostu ekonomikoa eta zer egin da horiekin?

Iruñean, 2024ko apirilaren 29an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

(Oharra: aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Parlamentuaren kudeaketarako Ágora sisteman).

## 11-24/PES-00191. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko arnasgailuei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko arnasgailuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko apirilaren 19ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak galdera egin du, idatziz

erantzun dakion, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren arnasgailuei buruz (11-24/PES-00191). Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

– Zenbat arnasgailu zituen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak COVID-19aren pandemia hasi aurretik?

O-NOZek 171 arnasgailu zituen 2020ko martxo baina lehen martxan jarrita zeudenak.

– Zenbat arnasgailu erosi ziren COVID-19aren pandemiak iraun bitartean (hasiera ofizialki deklaratu zenetik bukaera ofizialki deklaratu arte)?

2020ko martxotik 2023ko uztailaren 4ra bitarte, O-NOZek 76 arnasgailu erosi zizkien honako enpresa hauei eta zenbateko hauetan:

Kop.	Zenbatekoa	Hornitzailea
1	4.753,74	BF MEDICA SL
1	36.956,60	BF MEDICA SL
1	26.454,39	BF MEDICA SL
1	19.514,81	BF MEDICA SL
1	16.127,94	BF MEDICA SL
10	170.594,50	BF MEDICA SL
2	11.706,36	BF MEDICA SL
1	5.853,18	BF MEDICA SL
1	18.147,58	BF MEDICA SL
1	14.031,08	BF MEDICA SL
1	13.119,99	DRAGER HISPANIA SA
1	6.224,22	FISHER & PAYKEL HEALTHCARE SAS
1	12.448,44	FISHER & PAYKEL HEALTHCARE SAS
1	14.942,40	FISHER & PAYKEL HEALTHCARE SAS
1	14.942,40	FISHER & PAYKEL HEALTHCARE SAS
1	6.000,00	FISHER & PAYKEL HEALTHCARE SAS
1	84.700,00	GETINGE GROUP SPAIN SL
7	168.000,00	GETINGE GROUP SPAIN SL
7	126.000,00	GETINGE GROUP SPAIN SL
6	254.100,00	GETINGE GROUP SPAIN SL
2	44.000,00	GETINGE GROUP SPAIN SL
1	10.079,30	HOSPITAL-HISPANIA SL
1	11.132,00	INSANEX SL
1	12.100,00	INSANEX SL
9	108.900,00	MEDTRONIC IBERICA SA
1	4.235,00	MEDTRONIC IBERICA SA
10	199.650,00	NACIL MEDICA 4 GROUP SL
2	36.300,00	NACIL MEDICA 4 GROUP SL
2	14.950,00	PALEX MEDICAL SA

– Zenbat arnagailu jaso zituen Nafarroak dohaintzan COVID-19aren pandemiak iraun bitartean (hasiera ofizialki deklaratu zenetik bukaera ofizialki deklaratu arte)?

147 arnagailu jaso ziren dohaintzan.

– Pandemiaren nola erabili ziren Nafarroak erosi eta/edo dohaintzan jasotako arnagailu guzti-guztiak eta, kasua bada, non erabili ziren zehazki?

Beharrezko kalitate estandarrak betetzen zituzten erositako nahiz dohaintzan jasotako arnagailu guztiak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren askotariko zentroetako zeregin asistentzialetarako erabili ziren.

– Pandemiaren ondoren nola erabili ziren Nafarroak erosi eta/edo dohaintzan jasotako arnagailu guzti-guztiak eta, kasua bada, non erabili ziren zehazki?

Pandemiaren ostean zeregin asistentzialetarako erabiltzen ari ez diren arnagailuak biltegitatu dira, kasua bada erabiltzeko.

– Zenbat arnagailu erosi dira COVID-19aren pandemia bukatu zenetik orain arte eta zenbateko kostu ekonomikoarekin? Haietako zenbat erabiltzen ari dira eta non?

2023ko uztailaren 4tik sei arnagailu erosi dira eta zeregin asistentzialetarako erabiltzen ari dira. Honako enpresa hauei eta zenbateko hauetan erosi zitzaizkien:

Kop.	Zenbatekoa	Hornitzailea
1	13.119,99	DRAGER HISPANIA SA
2	121.786,50	GETINGE GROUP SPAIN SL
1	38.720,00	GETINGE GROUP SPAIN SL
1	12.000,00	FISHER & PAYKEL HEALTHCARE SAS
1	160.004,35	ALMEVAN SL

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 7an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

## 11-24/PES-00192. Galdera, osasun-azterketen itxaron-zerrendetatik kenduko diren pertsonen kopuruari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak osasun-azterketen itxaron-zerrendetatik kenduko diren pertsonen kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko apirilaren 26ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak galdera bat egin zuen, idatziz erantzutetako (11-24/PES-00192), honela zioena: "Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko zuzendari asistentziala 'egozpen automatikorako' gutunak bidaltzen ari da, gutunaren jasotzaileei osasun-azterketen itxaron-zerrendetatik kanpo geldituko direla ohartarazteko. Departamentuaren aurreikuspenen arabera, zenbat pertsona egonen

da egoera horretan?" Horri buruz, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak honako hau jakinarazten du:

Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko zuzendaritza asistentziala ez da inolako "egozpen automatikorako" gutunik bidaltzen ari; beraz, ez da inolako aurreikuspenik egin.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 13an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

---

## **11-24/PES-00193. Galdera, jakitekoa ea zer dela-eta bideratzen diren Iruñera Lizarrako erditzeak**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, jakitekoa ea zer dela-eta bideratzen diren Iruñera Lizarrako erditzeak, 2024ko apirilaren 26ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia

San Martín Rodríguez andreak informazioa eskatu du (11-24/PES-00193), jakiteko "zer arrazoi zehatz egon den PEI-00142 informazio-eskariari emandako erantzunaren eranskinean jasota ageri diren erditzeetako bakoitza Iruñera bideratzeko". Horri buruz, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak honako hau jakinarazten du:

- Ikus, atxikirik: 11-24-PES-00193 Respuesta\_Anexo

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 13an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

Eranskina

Zentroa	Erditze-eguna	Arrisku obstetrikoko handiko kontsulta	ABS Nom	
Iruña	2023/12/01	ez	LIZARRA	Erditze goiztiarra. Jaiotze-pisu baxua 2970 gr.
Iruña	2023/12/07	ez	LIZARRA	Garaiko haurdunalditik jaiotako 40 aste + 5eko adin gestazionalako jaioberria, adin gestazionalaren araberako pisua, Lizarran kontrolaturiko haurdunaldia, erditze eutozikoa
Iruña	2023/12/07	bai	LIZARRA	Erditze eutozikoa, 38+2. Ama diabetikoa..... arriskuzko haurdunaldia
Iruña	2023/12/09	ez	LIZARRA	ez dago haurdunaldiari buruzko daturik
Iruña	2023/12/10	bai	LIZARRA	---> sifilis latentea, ezin zehaztuzko infekzio-unea...
Iruña	2023/12/12	ez	LIZARRA	Garaiko haurdunaldiko jaioberria, 39+1, erditze eutozikoa, poltsa 64 h apurtuta, infekzio-arriskuko faktore bezala.
Iruña	2023/12/13	bai Muface	LIZARRA	ez dago haurdunaldiari buruzko daturik
Iruña	2023/12/13	ez	LIZARRA	SGB ezezaguneko erditze eutozikoa
Iruña	2023/12/14	ez	LIZARRA	Garaiko haurdunaldiko jaioberria, 41+4
Iruña	2023/12/15	ez	LIZARRA	40 asteko adin gestazionalako jaioberria, garaiko haurdunalditik jaiotakoa, adin gestazionalaren araberako pisukoa, haurdunaldi kontrolatukoa eta erditze eutozikokoa
Iruña	2023/12/17	ez	LIZARRA	Garaiko haurdunalditik jaiotako 38 aste + 3ko adin gestazionalako jaioberria, adin gestazionalaren araberako pisuduna
Iruña	2023/12/20	ez	LIZARRA	Jaioberria, zesarea-beharrarekin
Iruña	2023/12/23	ez	LIZARRA	Garaiko haurdunalditik jaiotako 39 aste + 5eko jaioberria, ipurdizko aurkezpenagatik zesarea-erditzez jaioa
Iruña	2023/12/23	bai	LIZARRA	ez dago haurdunaldiari buruzko daturik
Iruña	2023/12/28	bai	LIZARRA	Garaiko haurdunalditik jaiotako 40 aste + 2ko adin gestazionalako jaioberria, pisu txikikoa adin gestazionalerako,
Iruña	2024/01/09	bai (Ermitagañako sexu- eta ugalketa-osasunaren arretarako zentroa)	LIZARRA	Garaiko haurdunalditik jaiotako 39 aste + 4ko jaioberria, ama g. larriak, lehen arreta-mailan kontrolaturiko TSI negatiboekin, erditze eutozikoa
Iruña	2024/01/09	ez	LIZARRA	Haurdunaldiaren 30. astea + 2tik ama ospitaleratua, mintz-haustura goiztiarragatik eta garai aurreko 33 + 6 erditzeagatik. Arriskuko ospitaleratze eta erditzea
Iruña	2024/01/15	bai	LIZARRA	38 +3 asteko adin gestazionalako jaioberria, garaiko haurdunalditik jaiotakoa, adin gestazionalaren araberako pisukoa, haurdunaldi kontrolatukoa eta erditze eutozikokoa



## 11-24/PES-00194. Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuko lehendakaria Joseba Antxon Alonso Egurrola jaunarekin bildu den legegintzaldi honetan edo honen aurrekoan

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuko lehendakaria Joseba Antxon Alonso Egurrola jaunarekin bildu den legegintzaldi honetan edo honen aurrekoan, 2024ko apirilaren 26ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari José Javier Esparza Abaurrea jaunak eginiko galderari dago-kionez (11-24/PES-00194):

Nafarroako Gobernuko lehendakariak Joseba Antxon Alonso Egurrolari harrera egin al dio, harekin bildu edo harekin jan al du legegintzaldi honetan edo aurrekoan?

Bere zereginen dagokien ohiko jardunean, eta Foru Komunitatearentzat pisu berezikoak diren enpresa-proiektuekin lotura duten pertsonetikiko harreman normalaren barrenean, lehendakariak harrera egin zion Alonso Egurrola jaunari 2020ko

uztailaren 24 eta urriaren 20an eta 2021eko apirilaren 21 eta irailaren 17an. Bilera horiek Alonso jaunaren ekimenez egin ziren, eta aztergai izan zituzten Nafarroako Jauregiaren Artxiboan eginiko eraberritze obrak eta Zangozako Mina Mugako eraikitze-proiektua.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 10ean

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari José Javier Esparza Abaurrea jaunak eginiko galderari dago-kionez (11-24/PES-00194), lehenago igorritako erantzunaren osagarri, honako galderaren erantzuna bidaltzen da, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak ezarritako erantzun-epearen barrenean:

Nortzuk egon ziren horietako bakoitzean?

Nafarroako Gobernuko lehendakaria eta Alonso jauna.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 14an

Nafarroako lehendakaria: María Chivite Navascués

## 11-24/PES-00195. Galdera, laboreetan tratamendu fitosanitarioak baliatzeari buruz Foruzaingoak bertatik bertara egindako ikuskapenei buruzkoa

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak laboreetan tratamendu fitosanitarioak baliatzeari buruz Foruzaingoak bertatik bertara egindako ikuskapenei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak

emana. Galdera 2024ko apirilaren 26ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak honako galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion: Foruzaingoak zenbat ikuskapen egin ditu bertatik bertara laboreetan fitosanitarioak baliatzeari buruz (produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipoen ikuskapen teknikoak, aplikatzaile-karneta, baliatutako materialak eta nahasketak eta abar)? Zenbat salaketa jarri dira, arauhaustek direla-eta, 2023ko urtarriletik hona? (11-24/PES-00195). Galdera hori dela-eta, Nafarroako Gobernuko Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak honako hau jakinarazten du:

Datu-baseetan kontsulta egin ondoren, Inguru-mentena Babesteko Brigadako buruak honako honen berri eman du:

– Lehenbiziko galderari dagokionez, ikuskapen-kopuruari buruz, guztira 122 kontrol egiaztatu dira.

– 2023tik hona jarri diren salaketen kopuruari buruz, guztira 10 buletin daude, gaur egunera arte.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 14an

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: M<sup>a</sup> Amparo López Antelo

## **11-24/PES-00196. Galdera, unibertsitatei buruzko foru legea izanen denari begira Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuan egindako bilerei buruzkoa**

**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak unibertsitatei buruzko foru legea izanen denari begira Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuan egindako bilerei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko apirilaren 26ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatzizko erantzunerako galdera egin du, unibertsitatei buruzko etorkizuneko foru legea dela-eta Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuan izan diren bileren gainean (11-24/PES-00196). Hona Nafarroako Gobernuko Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentua lehenbiziko hartu-eman batean ari da unibertsitateko eragileekin, eginkizun dagoen Unibertsitatei buruzko Foru Legearen prestaketari begira haien proposamenak jaso ahal izateko.

Gaur arte, ondoz ondoko bilerak egin ditugu Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorearekin, Nafarroako Unibertsitateko errektorearekin eta Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren Iruñeko eta Tuterako ikastetxe elkartuen zuzendaritzarekin.

Aurreneko hartu-eman bat ere izan dugu NUPeko Ikasle Kontseiluarekin, NUPeko administrazioa eta zerbitzuetako langileen batzordearekin, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle-ikertzaileekin eta NUPeko Gizarte Kontseiluarekin.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 20an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Patricia Fanlo Mateo

**11-24/PES-00197. Galdera, Zizur Zendeako haur-eskolari buruzkoa****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak Zizur Zendeako haur-eskolari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko apirilaren 26ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkezturiko 11-24-PES-00197 idatzizko galderari buruz, honako honen berri ematen du Hezkuntzako kontseilariak:

Une honetan, Hezkuntza Departamentua haur-hezkuntzako lehen zikloko postu-eskaintza gehitze aldera lanean ari delarik, 24-25 ikasturtean Zizur Zendeako haur-eskolak eskaintako unitatekopurua murrizteari buruzko balorazioa ezinbestean da negatiboa.

Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 1eko 16/2024 Foru Aginduaren 5. artikuluan ezartzen da ezen funts publikoekin ordaindutako Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeen titular diren toki-entitateek bidali egingen diotela Hezkuntza Departamentuari kasuko ikasturtean ikastetxe horretan eskainiko diren unitateen kopuruari eta hizkuntza-irakasbideari buruzko aurreikuspena, bai eta proposamen hori oinarritzen duen justifikazioa ere. Halaber, foru agindu horrek ezartzen du aurreikusitako eskaintza Hezkuntza Departamentuak baimendutakoa izan beharko dela..

Zizur Zendeako haur-eskola horren titular den entitateak, bere eskumenen esparruan, bidali egin du, ezarritako epean, 2024-2025 ikasturtean eskaini nahi dituen unitateen kopuruaren berri; eta, horrekin batera, kasuko justifikazioa. Hezkuntza Departamentuak baimendu egin du eskaintza hori, bere betebeharren alorrean.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 15ean

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi